



NORBANAKAKO CURRÍCULUM EGOKITZAPENI BURUZKO HEZKUNTZA SAILBURUORDEAREN ARGIBIDEAK

EAEko hezkuntza-ereduaren eta eredu pedagogikoaren markoan pertsona guztien hezkuntzarako eskubidea bermatu behar dela jasota agertzen da, zuzentasun eta justizia sozialaren ildotik egindako planteamendu etiko batetik abiatuta. Hezkuntzak aukera-berdintasuna segurtatu behar du, ez du inolako diskriminaziorik egin behar eta desberdintasun ekonomiko, sozial, kultural eta pertsonalak konpentsatzeko funtzioa bete behar du. Filosofia horrek Administrazioak, hezkuntza-arduradunek, profesionalek eta hezkuntza-erkidegoko kide guztiek inklusioaren printzipioaren arabera jokatzeko dakar; horiek horrela, hezkuntza muinbakar eta pertsonalizatu bat sustatuko dute, oinarrizko derrigorrezko hezkuntzak bukatu arte.

Dekretu ofizialetan jasota agertzen den curriculuma EAEko ikasle guztiek eskuratu behar duten irteera-perfil bat lortzera bideratuta dago. Dena den, kasu batzuetan curriculum ofizialak ez die zenbait ikasleren premia indibidual eta espezifikoerantz erantzunik ematen, edo, zirkunstantzia batzuk agertzen direlako, helburuak ezin dira ohiko bidetik lortu.

Kasu horietan, irakaskuntzaren muinbakartasun eta pertsonalizazioaren arabera, behar diren curriculum-aldaketak eta jarduera-planak egin behar dira, curriculumaren helburuetatik, edukietatik eta ebaluazio-irizpideetatik era esanguratsuan aldentzen diren egokitzapenak barne (Norbanakako curriculum-egokitzapen esanguratsuak NCE), eremu pertsonal, intelektual, sozial eta emozionaletan gaitasunak ahalik eta gehien garatze aldera ikasle horien banakako premia espezifikoerantz eman beharreko hezkuntza-erantzun egokiena bermatzeko asmoz.

Dena den, curriculumaren aldaketa esanguratsuek baimentzeko prozesu bat eskatzen dute, ikasleen hezkuntza-eskubideak bermatze aldera. Ikaslearen zirkunstantzia pertsonalak kontuan hartuta, egoerak eragindako arloan /irakasgaiari /moduluan ... ikasle horrentzat curriculum ofiziala NCEn proposatutakoa (gaitasunak garatzeko maila, helburuak, edukiak, ebaluazio-irizpideak ...) dela Hezkuntza Administrazioak onartzea dakar baimen horrek eta, beraz, ebaluazioak eta beste kurtso batera igarotzeko prozesuak egokitzapen horietan finkatutako ebaluazio-irizpideak hartuko dituzte erreferentetzat.

1998ko uztailaren 24ko aginduak (uztailaren 31ko EHAA), aurrekoaren aldaketa bakarra agertzen duen 1998ko abenduaren 22ko aginduak (1999ko urtarrilaren 19ko EHAA), curriculum-egokitzapenei eta salbuespenei buruz eta Hezkuntza sailburuordearen argibide hauek xedatutakoaren arabera jokatuko da egokitzapen horiek egin eta baimentzeko orduan.

1.- ARGIBIDE HAUEN HELBURUA

Norbanakoaren curriculum-egokitzapen esanguratsuak egin, tramitatu eta ebaluatzeko prozesua dela-eta ikastetxeei orientabideak ematea dute argibide horiek helburu, EAEko ikasle guztien premiei ahalik eta erantzun egokiena emango zaiela bermatze aldera.



2.- NORBANAKAKO CURRÍCULUM-EGOKITZAPEN ESANGURATSUAREN DEFINIZIOA ETA BESTE ASPEKTU OROKOR BATZUK

Banakako curriculum-egokitzapen esanguratsua (NCE) horrela definitzen da: **curriculumaren derrigorrezko elementuak funtsean aldatzea** dakarren **aparteko neurri bat**. Horri dagokionez, 1998ko uztailaren 24ko aginduak (abuztuaren 31ko EHAA) 8.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, *“zikloaren curriculum eta irakasgai edo arloaren programazioa egokitzea, hezkuntza-errefortzua, kurtso edo ziklo batean urtebete gehiago ematea ... bezalako **ohiko neurri guztiak nahiko ez direnean besterik ez da aplikatuko**”*.

Bestalde, abenduaren 22ko 236/2015 dekretuak, Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum finkatu eta Euskal Autonomia Erkidegoan ezartzen duenak, 51. artikuluan xedatzen duenez, *“**kurtsoa errepikatzea aparteko neurritzat joko da eta, ikasleak ikasteko dituen zailtasunak gainditzeko, gainontzeko ohiko errefortzu- eta laguntza-neurri guztiak agortu ondoren hartuko da**”*.

Horregatik, oro har, **aparteko izaera duen ohiko neurritzat** joko da kurtsoa errepikatzea eta **NCE (ACI) proposatu aurretik** hartuko da kontuan.

Edonola ere, NCEren proposamena egin aurretik, ikasle bakoitzaren premiak baloratu behar dira eta ohiko neurri guztiei eman behar zaie lehenetsia. Horregatik, lehenengo aldiz eta ohiko neurriak, errepikatzea barne, agortu gabe ikasle batentzat curriculum-egokitzapen esanguratsu bat proposatzen bada, **proposamen hori arrazoitu beharko da**.

2.1.- NCE globala

1998ko uztailaren 24ko (abuztuaren 31ko EHAA) aginduaren 9. artikuluan horrela definitzen dira banakako curriculum-egokitzapen esanguratsu globalak: curriculum-arlo desberdinetan oinarritzat jotzen diren helburu orokorrak eta edukiak ezabatzen dituztenak eta, horren ondorioz, **etaparen helburu orokorrak eta ebaluazio-irizpideak era esanguratsuan aldatzen dira**.

Desgaitasun intelektualari, garapenaren nahaste orokorrari eta desgaitasun anitzari lotutako hezkuntza-premia bereziak dituzten ikasleei begira bideratuta dago NCE globala, ikasle horien curriculumean alde esanguratsua badago duten curriculum-gaitasunaren mailaren eta eskolatuta dauden kurtso mailaren artean. Alde esanguratsu horrek era orokortuan curriculum-esparru guztiei edo gehienei eragiten die eta, horregatik, arrazoizkoa da pentsatzea zailtasun inportanteak izango direla, eskolatuta dauden etaparen helburu orokorrak lortzeko eta etapa horren oinarrizko gaitasunak garatzeko orduan.

Lehen aipatutako alde esanguratsu horrek curriculum-esparru guztiei edo gehienei era orokortuan eragiten diela esan ahal izateko, helburu orokorrak lortzeko zailtasun nabarmenak izango direla aurreikusten den arlo edo irakasgaiak aldi berean eragin behar diete hizkuntz arloaren eta arlo zientifiko eta matematikoaren oinarrizko gaitasunei.

Horiek horrela, curriculum-egokitzapen esanguratsuen proposamena aldi berean Euskara eta Euskal Literatura, edo Gaztelania eta Literatura, eta Matematikak arlo /irakasgaietan egiten bada, egoera horrek etaparen helburu orokorreari era esanguratsuan eragingo diela pentsatu behar da eta, horregatik, proposamena NCE globala izango da.

NCE global bat proposatu ahal izateko, gutxienez bi ikasturtekoa, bai Lehen Hezkuntzan, bai Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, izan behar du ikaslea eskolatuta dagoen kurtso curriculum-mailaren eta haren curriculum-egoeraren arteko aldeak.



2.2.- Arlo mailako NCE

1998ko uztailaren 24ko aginduaren 9. artikuluan horrela definitzen dira arlo mailako banakako curriculum-egokitzapen esanguratsuak arlo konkretu batean edo batzuetan helburu, eduki eta ebaluazio-irizpideak aldatzen diren arren, etaparen helburuak aldatzen ez dituzten eta ikasleek, etaparen bukaeran, behar den titulazioa eskuratzea helburu duten horiek.

Ondorengoei lotutako hezkuntza-laguntzako premia espezifikoak dituzten ikasleentzat proposatu ahal izango dira arlo edo irakasgai mailako NCEak:

- Ikusteko desgaitasuna
- Entzuteko desgaitasuna
- Mugitzeko desgaitasuna
- Ondorengo puntuei lotutako ikasteko zailtasunak:
 - Irakurtzen eta idazten ikastea.
 - Kalkulua ikastea.
 - Hizkuntzaren nahaste espezifikoa.
- Arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen edo hiperaktibitatearik gabeko nahasmendua.

Desgaitasuna hizkuntzaren eremuan adierazten duten ikasleak sartzen dira egoera honetan eta horrek era esanguratsuan eragin ahal die mailaren helburuak, curriculumaren hiru hizkuntza arlo edo irakasgaietan, lortzeko aukerei. Dena den, eta egoera honek zuzenean eragiten ez dien beste curriculum-esparru batzuei dagokienez, arlo edo irakasgai horietan mailaren helburuak lor litzake ikasleak eta, horregatik, irekita geratuko litzateke ikasleak etaparen helburu orokorrak eta Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortzeko aukera.

Dena den, eta ikasteko zailtasun espezifikoei, arreta-defizitaren eta hiperaktibitatearen nahasmenduari eta hizkuntzaren nahasmendu espezifikoari lotutako hezkuntza-laguntzako premia espezifikoen kasuan, betiere hezkuntza-errefortzuko planak edo curriculumera sartzeko egokitzapenak egiteko prozesuari eman beharko zaio lehentasuna.

Aparteko kasuetan, espekto autistaren nahasmendua duten ikasleena esate baterako, errefortzu-neurriak ez ezik, hezkuntza-premia berezietako aholkularitzek behar bezala arazoitutako arlo mailako NCEren proposamena ere egin ahal izango da, betiere, NCE mota hori definitzen duten baldintzak betetzen badira.



3.- IRAUPENA, CURRÍCULUM ERREFERENTZIA, EBALUAZIO IRIZPIDEAK, HURRENGO KURTSORA IGAROTZEA, TITULAZIOA ETA AKTETAN ERREGISTRATZEA.

3.1 NCE baten iraupena:

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzann NCEren iraupena, betiere, ikasturte batekoa izango da.

Hala ere, egokia ikusten bada, NCE-a zabalagoa den beste planifikazio-unitatearen barruan egokitu daiteke, horren jarraipen eta koherentzia pedagogikoa eta kurrikularra bermatze aldera. Edonola ere gutxienez ikasturte bukaeran NCE-aren urteko ebaluazioa egingo da.

3.2 Curriculum-erreferentzia:

Curriculum ofizialaren erreferentzia adierazi behar da banakako curriculum-egokitzapen bakoitza egiteko orduan, lortu beharreko curriculum-gaitasuna identifikatu ahal izateko eta ikaslearekin landu beharko den curriculum-a errazago antolatzeko.

Ikaslearen espedientean jasota agertzeko, ondorengo eginbidea erabili ahal izango da:

“ 2018ko -----aren -----(-e)an onartzen da -----erreferentziako arlo mailako NCE/NCE globala “.

(Curriculum-erreferentzia guztietarako berbera ez bada, arlo edo irakasgai bakoitzerako curriculum-erreferentzia adieraziko da).

Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, curriculum-aldeak bi ikasturtekoa edo gehiagokoa izan beharko du. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, Lehen Hezkuntza izango da curriculum-erreferentzia. Dena den, 3. eta 4. kurtsoetan arlo mailako curriculum-egokitzapenak egin ahal izango dira, bi kurtso edo gehiagoko curriculum-alde batekin etapa horretan bertan.

Curriculum-erreferentziak ez duela NCEren helburu eta eduki guztietan berbera izan behar adierazi behar dugu. Horiek horrela, hau gerta daiteke: kurtso edo etapa bateko NCE bat gainditzeak ez du derrigorrean kurtso edo etapa horren helburu guztiak gainditu direnik esan nahi; NCEn jasota agertzen direnak dira gainditu direnak. Horregatik, NCE hori gainditu ondoren, kurtso edo etapa bereko beste NCE bat planteatu daiteke, gainditu gabe dauden kurtso edo etapa beraren beste helburu batzuekin.

Kurtso edo etapa bateko NCE bat gainditzeak, NCE hori gainditzean kurtso edo etapa horren gutxienezko helburuak eta gaitasunak garatzeko maila lortu badira, kurtso edo etapa hori gainditu direla esan nahiko du. Kasu horretan zirkunstantzia hori ikaslearen espedientean, behar den eginbidearen bidez, jasota agertuko da (2.6. atala: “dokumentazioa akademikoa betetzea “ eta “Norbanakako curriculum egokitzapenei buruzko hezkuntza sailburuordearen argibideak_sarrien egiten diren galderak” dokumentuko 11. puntua: “eginbideen eredua “ ikusi).



3.3 Ebaluazio-irizpideak:

Ebaluazio prozesuan kontuan hartu beharreko irizpideak, hezkuntza administrazioak ikasle bakoitzarentzat baimendutako NCEn finkatu direnak izango dira, lehenago ere esan denez NCE horrek bere curriculum ofiziala adierazten baitu eragindako arloetan /irakasgaietan.

Irakasgairen batean arlo mailako NCEekin DBHko 4.ean eskolatuta dauden ikasleen kasuan, NCE gainditzeak etaparen gutxienezko helburuak lortzea dakarren azaldu beharko da ebaluazio-irizpideetan.

3.4 Hurrengo kurtsora igarotzeko irizpideak:

Ikasle batek NCE global bat baimenduta duen kasuetan, irakasle-taldeak ikasle hori hurrengo kurtsora pasako den edo ez erabakiko du, kurtsoa errepikatzeko neurria dagoeneko erabili den eta neurri hori ikaslearen premietarako egokia den kontuan hartuta.

Ikasle batek arlo mailako NCE bat edo batzuk baimenduta baditu eta NCE horiek gainditu badira, NCEren bidez gainditu diren arlo edo irakasgaiak gainditzat joko dira, hurrengo kurtsora pasatzearen ondorioetarako.

3.5 DBHko titulazioa.

NCE global bat baimenduta duten ikasleek ezin izango dute Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortu.

Irakasgai batean edo gehiagotan arlo mailako NCEak baimenduta dituzten ikasleen kasuan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Graduatuaren titulua lortu ahal izango dute, irakasle-taldearen ustez, curriculum-egokitzapen esanguratsuen helburu diren irakasgaien helburu orokorrak lortu ez diren arren, ikasleak etaparen gutxienezko helburuak eta oinarriko gaitasunen garapen maila lortu baditu, 236/2015 dekretuak irteera-perfilari buruz xedatutakoaren arabera.

Edonola ere, NCEn jasota agertzen diren ebaluazio-irizpideak gainditzeak etaparen helburu orokorrak lortzea dakarrela adierazi behar da NCE horretan.

3.6 Dokumentazio akademikoa betetzea:

Dokumentazio akademikoa ikasturtearen bukaeran behar bezala betetzearen garrantzia hartu behar da kontuan eta, NCEren proposamen bat tramitatu aurretik, ikaslearen espedientea behar bezala beteta dagoen eta haren egiazko eskolatzeko egoera adierazten duen egiaztatu behar da.

Azken ebaluazioaren unean, banakako curriculum-egokitzapen bat gaindituta duten ikasleen kasuan, kalifikazio kuantitatiborako laukian, "notak eta hutsegiteak" aplikazioan, "NCE" markatuko du ikastetxeak eta izartxo (*) bihurtuko da aktan.

Aurrera eramandako lan-planari eta ikasleak lortutako aurrerapenari buruzkoa izango da kalifikazioa eta, horretarako, NCEn finkatutako ebaluazio-irizpideak hartuko dira kontuan.

NCE bat gainditzeak kurtsu edo etapa baten helburuak gainditzea baldin badakar, zirkunstantzia hori ikaslearen espedientean adieraziko da eginbide baten bidez, eta, horretarako, ikasleak helburu horiek eta maila gainditu dituen data adieraziko da.

Ondorengo eginbideak erabili ahal izango dira:

- a) NCE gainditzeak mailaren gutxienezko helburu guztiak lortzea baldin badakar:



*2018ko -----aren -----(-e)an Lehen Hezkuntzako /Bigarren Hezkuntzako ----
---mailako NCE gainditzeak maila horretako gutxienezko helburuak lortu direla esan
nahi du.*

Kasu horretan, ez da kurtso honen curriculum-erreferentzia duen NCEren beste proposamenik onartuko.

- b) NCE gainditzeak mailako gutxienezko helburu guztiak lortu izana ez badakar eta, beraz, beste helburu batzuk lantzen jarraitu behar bada:

*2018ko -----aren -----(-e)an Lehen Hezkuntzako /Bigarren Hezkuntzako -----
mailako NCE gainditzeak ez du mailako gutxienezko helburu guztiak lortu direnik
esan nahi.*

Kasu horretan, kurtso horren curriculum-erreferentzia duen NCEren beste proposamen bat egin daiteke.

Lehenago ere esan denez, NCEren egoera ikaslearen espedientearen eginbideak eginez adieraziko da.

NCEren bidez gaindituta dauden arlo edo irakasgaiak, haien curriculum-erreferentzia aurreko kurtsoetan egon arren, ez dira akta osagarritan sartuko.

Eraitza akademikoen akten ebaluazio-laukia ez da inolaz ere bete gabe geratuko.

3.7 NCE aurreko ikasturtean izan duen eta gaur neurri hori behar ez duen ikasle baten espedientearen egoera.

NCE duen ikasle batek egindako aurrerapenengatik neurri hori dagoeneko behar ez badu, ohiko egoeran dauden ikasleentzat erabiltzen diren irizpide berberak erabiliko dira haren espediente akademikoa betetzeko orduan; hots, eskolatuta dagoen curriculum-mailaren arabera kalifikatuko dira arlo edo irakasgaiak eta, arlo edo irakasgairen bat gainditu gabe geratzen bazaio, arlo edo irakasgai hori hurrengo ikasturtean akta osagarrietan edo gainditu ez den mailaren gainditu gabekoen aktetan sartuko da.

Gainditu gabeko irakasgaia horrela defini dezakegu: ikasleak egin duen mailari edo programari lotutako helburuak lortu ez dituen hori.

3.8 Ebaluazioaren ardura.

Ematen dituzten irakasleek beren gain izango dute NCE eragin duten arlo edo irakasgaiak ebaluatzearen eta kalifikatzearen ardura. Horretarako, behar izanez gero, hezkuntza-laguntzako premia espezifikoei laguntzeko irakasle espezialistek edo hezkuntza-laguntzako beste funtzio batzuk betetzen dituztenek egin ditzaketan ekarpenak baloratuko dituzte eta egokitzapen horretan finkatutako ebaluazio-irizpideak hartuko dituzte erreferentetzat.



4.- TRAMITATZEKO PROZESUA

4.1.- W67 aplikatzaileen bidez egiten da, oro har, curriculum-egokitzapenen tramitazioa, abenduaren 22ko 236/2015 dekretuak (urtarrilaren 15eko EHAA) 37.5. artikuluan eta 1998ko uztailearen 24ko aginduak (1998ko abuztuaren 31ko EHAA) xedatukoaren arabera.

4.2.- Gela egonkorretan eskolatuta dauden ikasleen kasuan, gela egonkorrerako curriculum-proiektua tramitatu behar da. 2 urte iraungo du eta Hezkuntza Ikuskaritzak eman behar dio oniritzia. Ez dira NCEren banakako proposamenak egin beharko.

4.3.- NCE, eta ez hezkuntza-errefortzua, duen ikasle bat dela egiaztatu behar da. Izan ere, hezkuntza errefortzuko bada, plan pertsonalizatu bat egingo da (HIBP, HBSP ...).

4.4.- Ez dira banakako curriculum-egokitzapenak proposatu behar ikasleen espediente akademikoan gaindituta agertzen diren arlo eta irakasgaietan.

Ikaslearen espedientean jasota agertzen diren eginbideak berrikusiz egiaztatuko da zirkunstantzia hori. Horregatik, eginbide horiek ikaslearen dokumentazio akademikoan zorrotz erregistratzearen garrantzia.

4.5.- Ikasle berberak ezin izango ditu bi neurri (NCE eta salbuesita izatea, NCE eta errefortzu-plana arlo edo irakasgai berean ...) izan.

4.6.- NCE duten arlo edo irakasgaiak ez dira akta osagarrietan edo gainditu gabekoen aktetan sartuko, ikasleak, aurreikuspenen arabera, lortu ahal dituen mailen arabera planifikatu baita NCE. Dena den, NCE gainditu ezean, NCE ikaslearen ezaugarri eta premietara egokitzen den eta beste NCE bat, curriculum-ezaugarri desberdinekin, proposatu behar den planteatu beharko litzateke.

4.7.- NCE gainditzeak mailako gutxienezko helburu guztiak lortu izana dakarren eta, beraz, beste helburu batzuk lantzen jarraitu behar den jasota agertu behar da NCEren agiriaren II. eranskinean. Halaber, ikaslearen espedientean jasota agertuko da, eginbideen bidez.

4.8.- Ikastetxearen sinadura guztiak eta zigilua sartzen dituen orria igo behar da aplikaziora. NCE batek arlo bat baino gehiago sartzen badu, guztietan derrigorrean izenpetu behar da.

4.9.- NCEak tramitatzeko orduan, Haur, Lehen eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ikasturtea antolatzeari buruzko Hezkuntza sailburuordearen urteko ebazpenak xedatutako egutegiaren arabera jokatu da, banakako curriculum-egokitzapen esanguratsuak, gaitasun intelektual handietako ikasleentzat curriculum-a zabaltzeko curriculum-egokitzapenak eta gela egonkorretako curriculum-proiektua aurkezteko epeei dagokionean.

Prozesuak ondorengo urratsak izango ditu:

- Ikastetxeko zuzendaritzak ikasturtearen hasierako ebazpenean adierazten diren datetan tramitatu du norbanako curriculum-egokitzapen esanguratsuen proposamena.
- Berritzeguneko hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzak emango du txostena.
- Hezkuntza Ikuskaritzak emango du oniritzia.
- Curriculum-egokitzapena eta gela egonkorretako curriculum-proiektua baimentzeari edo ez baimentzeari buruzko erabakia jakinaraziko die ikastetxeei Hezkuntza Berritzatzeko lurralde arduradunak.
- Idatzizko txostena bidaliko die ikaslearen legezko ordezkariari ikastetxeak eta txostenean ebazpenaren kopia gaineratuko du.



Hezkuntza sailburuordearen urteko ebazpenean aipatutako daten ondoren, ikasturtean zehar etorri diren ikasleentzat bakarrik tramitatuko dira eskaerak.

4.10.- Akatsak zuzentzeko Hezkuntza Ikuskaritzak itzul ditzakeen proposamenen kasuan, 10 eguneko epea izango da, eskatutako zuzenketak egiteko edo behar den dokumentazioa osatzeko.

4.11.- Ikuskaritzak W67 aplikazioan NECri emandako oniritzia edo ematearen kontrako iritzia markatu ondoren, onartutako eta ezetz esandako NCEak zeintzuk diren jakinaraziko die ikastetxeei Hezkuntza Berriztapenak.

4.12.- Hezkuntza Ikuskaritzak onartzen ez dituen NCEren proposamenak legezko tutoreak sartutako administrazio-errekurtsio gisa tramitatu beharko zaizkio tokian-tokiko lurralde ordezkariari eta, horregatik, ezin izango dira W67 aplikazioaren bidez berriz tramitatu.

5. NCEak ITZULIKO DIREN EDO ONARTUKO EZ DIREN EGOERAK.

Argibide hauetan xedatutakoaren arabera, ondorengo egoeretan itzuliko dira, berrikusteko, edo ezetz esango zaie NCEei:

a) NCEak, globalak eta arlo mailakoak, ondorengo egoeretan itzuliko dira, berrikusteko:

- Familiak proposamena ezagutzen duela egiaztatzerik ez badago, legezko tutoreen sinaduraren edo ezin gezurtatzeko beste modu baten bidez, (1998/07/24ko aginduaren 11.1. artikulua).
- Haren iraupena espresuki zehazten ez bada (1998/07/24ko aginduaren 4.1. eta 4.2. artikulua).
- Eranskin edo eskatutako datu guztiak sartzen ez baditu (1998/07/24ko aginduaren 10. artikulua).
- Agiri bakar batean aurkezten ez bada.
- Behar izanez gero, hizkuntzei lotutako arlo /irakasgai bakoitzerako (euskara, gaztelania edota atzerriko hizkuntza) bereizitako curriculum-egokitzapen bat ezartzen ez bada.
- Proposatutako arlo /irakasgaien izenak ez badatoz ikaslea eskolatuta dagoen ikasturterako legez ezarritakoekin bat. Kurtso horren aktan jasota agertzen diren curriculum-arlo /irakasgaiak direla ikasturtearen bukaeran ebaluatuko direnak hartu behar da kontuan.

b) Arlo mailako NCEak ondorengo kasuetan itzuliko dira, berrikusteko:

- DBHko 4.erako proposamenak berau gainditzeak etaparen oinarrizko gaitasunak eta helburuak lortzeko aukera emango duen eta, beraz, titulua oro har ezarritako baldintzetan (curriculum-dekretuak eta ebaluazio-aginduak) lortzerik egongo den ebaluazio-irizpideetan espresuki agertzen ez badu.
- Curriculum-egokitzapenak lehenengo aldiz, kurtsoa errepikatzea bezalako ohiko neurriak agortu gabe, proposatzen badira eta proposamenak ez badu idatzizko motibazioa sartzen.



Kasu horretan hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzei edo ikastetxeari bidali beharko zaizkie, NCE behar den edo ez espresuki motiba dezan. Ildo horretan, ondorengo puntuak hartu behar dira kontuan:

- NCE garrantzitsuaren proposamenak curriculumaren elementu garrantzitsuei uko egitea dakarrela.
- Halaber, haien curriculum-ahalmenak ahalik eta gehien garatzeko ikasle guztien eskubidea bermatu behar da.

Motibazioa aurkeztu ezean, ezetz esango zaio NCEren proposamenari.

-Curriculum-proposamena ez badator 1 zk.ko ardatzarekin (diagnostikoa), argibide hauetan ezartzen diren terminoetan, bat.

c) Ondorengo arrazoiengatik ezetz esango zaie NCEei:

- NCE proposatzen den arloa ikaslearen espedientean gainditutakoen artean agertzen bada.
- Arlo mailako NCE batek ez badu curriculum-erreferentzia, gutxienez, matrikulatuta dagoen kurtsoa baino lehenagoko bi kurtsokoa.
- DBHn proposatzen den NCE globalaren curriculum-erreferentzia aurreko etapan kokatzen ez bada eta bi ikasturte edo gehiagoko curriculum-aldea ez badu.
- NCE bat berrikusteko itzultzen bada eta itzuli izana eragin zuten zirkunstantziak epean zuzentzen ez badira.
- HNEn edo dislexian oinarrituta hizkuntza bakar baterako arlo mailako NCE proposatzen bada.
- Curriculum-egokitzapenak lehenengo aldiz, kurtsoa errepikatzea bezalako ohiko neurriak agortu gabe proposatzen badira eta ikastetxei edota hezkuntza-premia berezietarako aholkularitzei bidali ondoren proposamenak ez badu idatzizko motibazioa sartzen

Argibide hauek, Banakako Egokitzapen Curricularren tramitazio prozedurari buruz aurretik argitaratutako guztiak ordezkatzeko dituzte.

Vitoria-Gasteizen, 2018ko irailaren 5a



Maite Alonso Arana
Hezkuntza Sailburuordea